

Fineco Banka Pribatua Kutxabank-ek marka hirukoitza ezarri du 2024an: zorroak, ondarea eta emaitzak

- 6.000 milioi eurotik gorakoa da bezeroen ondarea banka pribatuan, bere historiako kopururik handiena.
- Bezeroen zorroen errebalorizazioak eragin du bilakaera: ia % 100ek lortu zituzten balorazio-maximoak abenduan.

2025eko martxoaren 20an. - Fineco Banka Pribatua Kutxabankek bere zorroaren, ondarearen eta emaitzen balorazioen errekor hirukoitzarekin itxi zuen 2024a, bezeroen zorroen portaera sendoak bultzatuta. 2024an bere bezeroen guztizko ondarea 6.066 milioi eurotik gorakoa izan zen, 2023an baino % 6,6 gehiago, eta horrela erakundeak berretsi egin du Espainiako ondareen kudeaketan erreferentzia gisa duen posizioa. Emaitza, berriz, % 23,8 igo zen, 8,3 milioi euroraino.

Bere magnitude nagusien hazkundera bezeroen zorroen errebalorizazioaren eskutik joan da, horrela Fineco Banka Pribatua Kutxabanken ereduaren bereizgarri den interesen lerrokatzea islatuz. Zehazki, % 99 baino gehiago maximo historikoetara iritsi ziren abenduan. Arrisku-profilen arabera, profil oso kontserbadorea eta arrisku handikoa duten zorroen % 100ek maximo historikoak lortu zituzten 2024ko abenduaren erdialdean.

Fineco Banka Pribatua Kutxabanken inbertsio-fondo propioen gama boutique kudeaketa-ikuspegiarekin lerrokatuta dago, epe luzerako sendotasunean ardaztuta eta aparteko irtenbideekin hainbat arrisku-profiletarako. Erakundeak eboluzionatzen jarraitzen du merkatuaren baldintzei erantzuteko, 1994tik bere Kudeaketa Programatuaren eredua estrategiekin konbinatuz, horien artean Fon Fineco Patrimonio Global FI nabarmentzen delarik.

Daniel Irezabal kontseilari delegatuak eta Miguel Roqueiro zuzendari nagusiak honako hau adierazi dute: “2024koa bezalako ekitaldi bikain baten ondoren, Fineco Banka Pribatu Kutxabanken gure indarguneak sendotzen jarraitu nahi dugu aktiboen kudeaketan boutique espezializatu gisa, bezeroekin dugun harremanean sakonduz. Horretarako, Kutxabanken laguntzarekin, kalitatezko zerbitzu eta produktu propioak eskaintzeko lanean jarraitzen dugu, gure ekipoa eta gaitasun teknologikoa tresna berriekin handiagotuz”.

Fineco Banka Pribatua Kutxabankek 75 profesional baino gehiago ditu eskusibotasunez ondare handien kudeaketan eta aholkularitzan, lau hamarkadako ibilbidea du eta zazpi bulego Espainian.